

Entzumena lantzeko ariketen gaineko zenbait gogoeta

Gaizka Aurtenetxe, Maribi Zubiaga, Ainhoa Zarandona, Rafa Ugalde

Badirudi aspaldi honetan euskararen irakaskuntzan dihardugunongan hausnarketarako jarrera zabalduago dabilela, eta apurka-apurka erro-tuz doala. Halaber, entzumena lantzeko ariketei orain artean ardua handirik ez diegula eman iruditzen zaigu. Hori dela eta, horren inguruko ikastarotxo bat antolatu genuen Zornotzako Barnetegian 1996ko ekai-nean, hortik abiatuz eguneroko jardunean erabiltzen ditugun materialak aztertu eta hobetzeko, baita geure irakasle-gaitasuna sendotzeko ere. Halatan, ikastaro hura gogoan, hainbat entzungai prestatu, ikasleekin erabili, eta ikasgeletan gertatuaren argitan aztertzeari ekin genion. Horixe da, hain zuzen ere, artikulu honetan deskribatzen dugun espe-rientzia.

Entzutezko ulermena lantzeari ekiten diogunean helburu nagusia hona-koa da: “*ikasleak ahoz igortzen diren mezuen edukia ulertzeko duen gaitasuna hobetzea*”. Baina helburu hori aintzat harturik, berori lortze-ko oinarriko printzipio batzuk ezarri beharko genituzke lanari ekin aurretik, besteak beste:

- Testuak berak ez du ezelango zailtasunik adierazten, atazak baino.
- Gaiarekiko interesik ezak eragin negatiboa dauka ulertzekoan.
- “*Atal jakinen bat ulertzea*” da garrantzizkoa, ez dena ulertzea.
- Ulertzea guk dakigunari ezagutza berriren bat eranstea da.
- Entzun, gura barik ere entzuten dugu, ulertu jakinaren gainean eta xederen bat lortzeko egiten dugu.
- Irakastea (ikaslea mezuak ulertzeko trebatzea) eta ezagutza-maila neurtzea ez dira bat.

Hau guztia oinarri hartuta, zer egiten dugu:

- 1 Entzun aurretik?
- 2 Ataza zehazteko?
- 3 Ikasleek ataza egiten duten bitartean?

- 4 Erabilitako materialak eta ataza bera ebaluatzeko?
- 5 Ataza amaitu ostean?

Entzun aurretik

Ikaslea mezuak ulertzeko trebatu behar badugu, estrategiaren bat jakin beharko du horretarako. *Estrategia sozialak* (atazak planteatzen dion egoeran zelan moldatu, argibideak zelan eskatu...) beharko ditu; baita *estrategia linguistikoak* ere (zein espresio eta hitz berriri erreparatu); halaber, “*xede*” *estrategiak* (entzutean zein den gure helburua, erantzuna nola eratu...) eta “*eduki*” *estrategiak* (entzuten ari garena guk daki-gunarekin zerikusirik duen, aurrez igarri dezakegun...).

Gaiarekiko interesa piztu ahal izateko egin ohi duguna:

- Aurkeztutako egoeraren gainean zerbait ikusi eta komentatu.
- Hiztegia landu.
- Ekintzaren nondik-norakoa aurreikusi.
- Gaiari buruzko iruzkinak.
- Entzun aurretiko galderak.
- Hizkuntz formak aurkeztu.
- Atazaren bat aurkeztu.
- Ikasleen arteko interakziorako ariketaren bat.
- ...

Azaltzen al diogu ikasleari zenbateraino edo zein mailatan ulertu behar duen?

- Berbak baino ez (hutsuneak bete, izenak identifikatu...).
- Esaldiak (entzuten dutena egin, marraztu...).
- Informazioa egituratu (istorioak berregin, informazioa ordenatu...).
- Diskurtsoa (apunteak jaso, fitxaren bat bete...).
- Inferentziak egin (elkarrizketa batean jarrerak deduzitu, egoerak asmatu...).

Ataza zehaztu

Hasi baino lehen ondo azaldu beharko diogu ikasleari zein den ariketaren helburua, hots, berak zer ulertzea gura dugun eta horretarako irizpideak ondo zehaztu beharko ditugu. Lagungarri da, izan ere, entzunaldia hasi baino lehen, egin beharrekoaren ereduren bat ikasleei eskaintzea; sarri askotan arazoa ez da izaten testuaren zailtasuna, baizik eta ikasleek ez dakitela, zehatz-mehatz, zer egin.

Ikasleek ataza egin bitartean

Ataza egin bitartean erreparatzen diegu ikasleei? Non aurkitzen dituzte zailtasunak? Non ari dira gustura? Behaketa honek oso informazio baliozkoa emango digu gerora atazaren eta erabilitako materialaren ebaluaziorako.

Datu-biltze fasea izan beharko luke honek, eta daturik esanguratsuenak ikasleak berak ematen ahal dizkigu. Ez ote genioke galdetu behar, beraz, ikasleari berari zeintzuk estrategia erabiltzen dituen ahoz igorritako mezuak ulertu ahal izateko? Ea ondoko zerrendakoren bat erabiltzen duen:

- H₂n egiten diren elkarrizketak ulertzeko mintzagaiari buruz dakiena erabili.

- Elkarrizketa arinegia bada astiroago egiteko eskatu.
- Esandakoan oinarrituz esango dena igartzeko ahaleginak egin.
- Hitz ezezagunik agertzen bada azalpenak eskatu.
- Elkarrizketakideak esandakoa birformalatu eta egiaztatzeko eskatu.
- Jatorrizko hitzunen keinu eta espresioei erreparatu.
- Hitzaldia egituratzen duten espresio eta loturci erreparatu: *"lehenengo eta behin..."*, *"ondoren..."*, *"azkenik..."*, etab.

Ataza eta erabilitako materialak ebaluatu

Ataza burutu eta gero berorren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa egi-
tea komeni da:

- Erabilitako materialek ikasleen jakingura piztu dute?
- Bizimodu errealean hobeto ulertzeko lagungarri izan litekeen ikusizko elementurik erabili dugu?
- Kontuan hartzen ditugu ikasmaterialetan ikasleen hunkipenak, ikasesperientzia osoagoa izan dezaten eta ez intelektual hutsa?
- Entzun aurreko ariketarik erabili dugu?
- Geure kultura eta bizimoduari buruzko ezagutzarik eskaini diegu?
- Mezua entzuterakoan ematen al diogu ikasleari xede edo helburu zehatzik?
- Aipatu helburua nondik dago hurbilago, ikasgelatik ala ikasgelatik kanpoko mundutik?
- Eman diogu bitartekorik ikasleari berak alde aurretik dakiena aukeratu dugun gaiarekin lotzeko?
- Ulermenaz gain beste trebetasunik landu da?
- Mezua ulertu ahal izateko material lagungarri eman diogu ikasleari? Nahikoa eta egokia izan da?
- Aldez aurretik ezarritako helburua bete al da? Zelan neurtu dugu?

Hona hemen atazaren zailtasunean eragina izan dezaketen zenbait faktore:

- Informazioaren antolamendua.
- Testuaren gaia ezaguna edo ezezaguna izatea.
- Informazioa behar bestekoa den ala ez.
- Ikasleari emandako material lagungarriak nahikoak izatea.
- ...

Atazaren jarraipena

Egokia litzateke erabilitako atazari jarraipenen bat ematea, beste ataza edo ariketaren batekin lotzea, alegia.

Atazaren ebaluazioak ere jarraipena beharko luke, hots, 4. atalean aurrekeztu ditugun galderen artean baten batek ezezko erantzuna jasoko balu, zer edo zer aldatu beharko genuke baiezko erantzuna jaso ahal izateko.

Hauek guztiak gogoan izanik, eguneroko jardunean erabiltzen ditugun materialak aztertzeko eta egokitze erabakia hartu genuen. Egokitzen

hasi ginenean ez genuen uste material guztiak banan-banan zertan mol-
datu zegoenik, garrantzizkoago generitzon horietako zenbait aukera-
tzeari helburu ezberdinekin, irakasle guztiak hausnarketara eta eztabai-
dara sustatzeko; ondoren ikasleekin erabili eta azkenik ikasgelan jasota-
ko ohar eta emaitzak azken bilera batera ekarri genuen. Ondorengoak
gure eskarmentua handitzeko eta entzungaiaren bat erabili aurretik go-
goan izateko lirateke, horixe baita, hain zuzen ere, helburu nagusia,
egunean-egunean gure irakasle-gaitasuna hobetzea.

Ezinbestekotzat jotzen dugu material errealak erabiltzea, baina batzue-
tan, behe-mailetan batez ere, material egokirik aurkitu izan ez dugune-
tan, bertan egindako grabazioak ere ontzat hartu ditugu. Erabili izan
ditugun ariketa batzuk aurkezten ditugu jarraian:

Sarritan entzumena lantzeko ariketak prestatzean, behe-mailetan, zurru-
negi ibiltzen gara entzungaiaren testua gaitzegia ote den edo. Ikus ditzagun
ondoren zailtasun hori objetiboa den ala ez neurtzeko erabili geni-
tuen adibideetako batzuk (denak aurkeztea luzea litzateke eta).

Segidako hiru ariketak lehenengo urratsekoak dira.

.1: ariketa

Begiraiozu ikasle-fitxan daukazu taulari, eta Maite, Jose eta Keparen arteko elkarrizketa entzun ahala, bete ezazu ahal duzun guztia.

Gaur igandea da eta, Jose kalean dago Maite eta Keparekin.

Maite: Ni orain hondartzara noa eguzkia hartzera.

Jose: Zu, Kepa? Zu ere hondartzara zoaz?

Kepa: Ez, ni ez. Ni zurekin noa bazkaltzera, etxean bakarrik nago eta.

Maite: Nondik dabilza gurasoak, ba?

Kepa: Madriletik, Parisetik, ... leku askotatik. Oporretan daude.

Maite: Nik, astelehena eta asteartea jai ditut eta Algortara noa lagun bat
bisitatzera.

Kepa: Ni, astelehenean, asteartean eta asteazkenean lagunekin joango
naiz mendira, menditik ibiliko gara, gora eta behera.

Jose: Ba, nik ez. Nik ikasi eta ikasi egin behar dut. Astelehenean Mikele-
kin ikastera joango naiz, eta asteartean osaba bisitatzera, Amerike-
tatik dator egun batzuk pasatzera.

Maite: Eta gero?

Jose: Gero bai, asteazkenean zinemara anaiarekin.

Maite: Ni ostegunean joango naiz, nire laguna dator eta.

Kepa: Ni ostegunean ez naiz inora joango.

Jose: Ba, ni, osabarekin afaltzera joango naiz, edonora.

Maite: Eta gero, ostirala, ze ondo! Senargaiarekin eta beste bikote batekin
jaketxe horretara joango gara, horra!

Jose: Ni asteburuan Lekeitorra joango naiz, eta igandean gurasoak datoz
eta denok batera hondartzara joango gara.

Maite: Ni igandean nonbaitera... senargaiarekin, noski.

Kepa: Ni larunbatean etxetik Urkiolara joango naiz.

Jose: Ai, oporrak, oporrak!

IKASLE-FITXA

	NOR	NORA	NONDIK	NOREKIN
IGANDEAN				
ASTELEHENEAN				
ASTEARTEAN				
ASTEAZKENEAN				
OSTEGUNEAN				
OSTIRALEAN				
LARUNBATEAN				
HURRENGO				
IGANDEAN				

.2: ariketa

Ander eta lagunaren arteko elkarrizketa entzungo duzu. Entzun ondoren galderari erantzun.

- Laguna: Kaixo, Ander, zu hemen?
 Ander: Bai, egarri naiz.
 Laguna: Garagardorik nahi duzu?
 Ander: Ez, kafe hotza nahiago dut.
 Laguna: Aizu, kafe hotza, mesedez!
 Ander: Non duzu kotxe zaharra?
 Laguna: Saldu egin dut. Orain berria dut.
 Zerbitz.: Hemen duzue kafe hotza.
 Laguna: Eskerrik asko, utzi hor!
 Ander: Eta nolakoa da kotxe berria?
 Laguna: "Citroen" zuria da. Han dago. Nahi duzu buelta labur bat eman?
 Ander: Bai, bai, goazen.
 Ander: Oso eroso da. Ez du zaratarik egiten!
 Laguna: Arrazoi duzu; gainera, kotxe honen motoreak indar haundiagoa dauka.
 Ander: Honelako kotxea behar duzu. Zure lanean karga astunak eraman behar dituzu eta.
 Laguna: Aizu, Ander! Ez duzu erre-usainik sumatzen?
 Ander: Bada, egia esan, bai!
 Laguna: Zer bait erretzen ari da!
 Ander: Uf! Motoretik kea ateratzen da!
 Laguna: Ez da posible! Kotxea berria da!
 Ander: Bidegurutze horretan geldituko gara eta autobusa hartuko dugu etxera joateko.
 Laguna: Eta kotxea, zer?
 Ander: Hemen geldituko da.

Erantzun ondoko galderei:

- 1 Ander eta laguna tabernan daude?
 - 2 Nork erosi du kotxe berria?
 - 3 Zein da kotxe berria? Nolakoa da?
 - 4 Nora doaz lagun biak?
 - 5 Nondik ateratzen da kea?
 - 6 Nola bueltatu dira etxera?
 - 7 Kotxe berria ona da?
-

.3: ariketa

LOREAK ETA LANDAREAK (entzungaia)

ARROSA

Arrosaren loretik ateratzen da koipea. 200 kilo petalok litro bat "arrosa olio" ematen dute. Arrosaren uraz busti behar duzu zapi bat eta buruan ipini; buruko mina, tentsioa eta begietako mina kentzeko balio du.

KAMAMILA

Lasaigarri ona da. Buruko mina, insomnia eta antsietatea arintzeko balio du. Azalerako ere oso ona da. Soriasi, akne eta ekzemen kontra ere erabili behar da. Digestio txarrak eta sabeleko haizeak kentzeko tripan masajearekin eman behar da.

GERANIOA

Geranioaren koipeak depresioa sendatzeko balio du. Hilerokoak emakumei dakarkien umore-aldaketa orekatzeko balio du. Larruazal mota guztientzat da ona.

MENDA

Atentzioa handitzeko eta buruko mina kentzeko balio du. Arnasketa-arazoak arintzeko oso ona; adibidez, gripea edo katarroak sendatzeko. Sabelean masajea eman eta beheko, digestio txar eta haizeen kontra balio du.

SANDALOA

Gorputza lasaitzeko, freskatzeko, hantura eta kalentura gutxitzeko balio du landare honek. Laringitisa, eztarriko mina, bronkitisa eta bularreko tentsioa sendatzen ditu. Zistitisa osatzeko ere balio du.

LABANDA

Lasaigarria da, insomnia sendatzeko koipe oso ona dauka. Bizkarrean labanda koipeaz masajea hartu behar duzu eta primeran egingo duzu lo. Bainua hartzeko ere on-ona da. Gainera, analgesikoa da eta buruko mina sendatzeko balio du. Antiseptikoa da eta aknea, ekzemak eta erredura arinak sendatu nahi badituzu, erabili.

Entzun ondoren, ia esaten duzun hauen artean, ARROSA, KAMAMILA, GERANIOA, MENDA, SANDALOA, LABANDA, zein gaisotasun sendatzeko balio duten.

1. Fitxa	3. Fitxa
Insomnioa: Burukomina: Aknea: Ekzemak: Erredura arinak:	Soriasia: Digestio txarrak: Beherakoak: Eztarriko mina: Bronkitisa:
2. Fitxa	4. Fitxa
Depresioa: Sabeleko haizeak: Hantura: Kalentura: Laringitisa:	Antsietatea: Begietako mina: Bularreko tentsioa: Zistitisa: Buruko mina:

Ariketok egin osteko gogoetak

Lehenengo ariketa egiteko zailtasunak izan zituzten ikasleek, baina ez testua bera korapilatsuegia delako ezta bertan azaltzen diren egiturak lar gaitzak direlako ere. Zailtasuna ahotsak bereizi beharrak sortu zien, ikasleek nahastu egiten baitzituzten Jose eta Keparen ahotsak. Beraz, askotan komenigarria izan liteke, entzungaian agertuko diren ahotsen aurkezpena egitea, ikasleek ondo bereiz ditzaten. Beste zailtasun bat ikasle-fitxa bera da, ikasleak ez baitauka ezelango lagungaririk, informazio guztia jaso behar du taula osoa bete arte; eta larregitxo delakoan gaude ikasleak entzun, dena ulertu eta aldi berean idatzi behar izatea. Taula barruan zenbait argibide agertu beharko litzateke ikaslearentzako lagungarri

Bigarren ariketan (Kotxe berria), testua bera erraza bada ere, ikasle askok ezin izan zituen Ander eta Lagunaren ahotsak bereizi. Ikasleek ezin jarrai diezaiokete testu-hariari berbetan nor ari den ez badakite. Bestalde, elkarrizketa bera ere zentzugabekoa eta guztiz irreal da, “Kaixo Ander, zu hemen?” galderari “Bai, egarri naiz” erantzutea (adibidez) zentzugabekeria hutsa baita. Testuak ez du ez buru ez buztanik.

Hirugarren ariketari dagokionez (Loreak eta landareak), testua bera zailena bada ere, ikasleek ondo egin zuten, ariketa nola egin behar den ondo zehaztuta baitago. Ikasleak badaki zeri erreparatu behar dion, eta eskatzen zaion erantzuna ez da esaldi-mailakoa, hitzak jaso behar ditu.

Laugarren ariketa bat ere prestatu genuen David Nunan-en *Hizkuntzak irakasteko metodologia* liburutik hartutako atazan oinarrituz. Hiru mapa (Bilboko plano) eta hiru testu desberdin prestatu genituen. Hiru atazok talde berberarekin erabili genituen saio desberdinetan eta sortutako interakzioak grabatu. Hona hemen hiru testuok:

4.1 *Gidari batek taldea nora joango den azaltzen du:*

Ederto. Ibilaldia Carlton hoteletik hasiko da. Eta, eskumatara joko dugu Gran Vian behera. Eskuinaldean Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregia ikusiko dugu eta apur bat beherago Corte Ingelesa (isilunea) Beherago Arenaleko Zubia pasatuko dugu, Nerbioi ibaiaren gainetik, eta Arenalean sartuko gara. Eskuinaldean Arriaga Antzokia ikusiko dugu. Eta hortxe egingo dugu lehenengo atsedenaldia kafe bat hartzeko. Horren ostean Campo de Volantinerantz abiatuko gara. Eskumaldean Bilboko Udaletxea ikusiko dugu. Aurrerago Unibertsitateen Avenidan sartuko gara. Hortik pasatzean Deustuko Unibertsitatea ikusiko dugu. Ezkerretara jo eta Deustuko Zubian sartuko gara, ostera ere Nerbioi ibaiaren gainetik. Zubia igarota Bilboko museoa eta Doña Casilda Parkea daude. Bertan egingo dugu azken geldialdia. Museoa ikusi edo parketik ibilalditxo bat egiteko aukera izango duzue. Ondoren, ezkerretara joko dugu Rekalde Zumardirantz. Bertan eskumatara hartu eta Deportivo Frontoia ikusiko dugu. Handik zuzenean hotelera eroango gaitu berriro autobusak. Eta horixe da ibilaldi osoa.

4.2 *Ertzilla Hoteleko langile batek argibideak ematen dizkio bezero bati:*

- Egun on!
- Egun on!
- Esango didazu, mesedez, zelan joaten ahal naizen Udaletxera.
- Beno, urruntxo daukazu hemendik. Zelan joango zara, oinez ala autobusez?
- Ez, ez, gurago dut oinez joan hiria apur bat ezagutzeko.
- Ederto, orduan errazena hoteletik irten eta eskumatara jo, Ertzilla kalean behera, Federico Moyua Plazara heldu arte.
- A bai! Hori ezagutzen dut.
- Bai, plaza biribila eta handia da. Ba, han eskumatara jo behar duzu, berriro, Gran Vian sartu eta beherantz jarraitu. Corte Ingelesa eta Foru Aldundiaren jauregia ikusiko dituzu eskuinaldean.
- Ondoren Espaina Plaza igaro eta ezkerretara jo Buenos Aires kalean behera.
- A! Kale horretan Buenos Aires Antzokia dago, ezta?
- Horixe da! Ba, kaleari jarraitu eta Udaletxeko zubia pasatu beharko duzu Nerbioi ibaiaren gainetik. Ibaia zeharkatuta, ezkerretara jo eta bertan ikusiko dugu Udaletxea, Volantin ibilbidean dago.
- A! Orduan Gran Viera heldu eta beherantz jarraitu, gero Buenos Aires kalean sartu eta ibaiaren bestaldera pasatu.
- Horixe! Ez daukazu galtzerik.
- Ederto ba! Eta mila esker.
- Ez horregatik, gizona! Eta ondo ibili.

4.3 *Turista batek beste bati ibilaldian egindakoa kontatzen dio.*

- Aupa, arratsalde on!
- Arratsalde on!
- Zer moduz goizeko ibilaldian?
- Ederto ibili gara, Bilboko gauzarik interesgarrienak ikusi ditugu.
- A, bai? Eta nondik nora ibili zarete, ba?

- Beitu, ba..., hoteletik irten eta Gran Vian beheara abiatu gara; handik pasatzean Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregia eta Corte Ingelesa ikusten dira. Gero Arenaleko zubia pasatu, Nerbioi gainetik, eta Arriaga Antzokia ikustera joan gara; han kafetxo bat hartu eta ibai-bazterretik segitu dugu, udaletxearen eta Deustuko Unibertsitatearen aurretik. Ostera ere, Nerbioi gainetik pasatu eta museoa ikustera joan gara, eta parkean paseotxo bat egitera ere bai. Eta, amaitzeko, Deportibo Frontoiaren aurretik pasatu gara, eta handik zuzenean hotelera. Hortxe amaitu da.
 - Ba, ia Bilbo osoa ikusi duzue.
 - Ez, Bilbo osoa ez; alde zaharra eta San Mames eta ez ditugu ikusi.
 - Beharbada, beste ibilaldiren bat prestatuko dute.
 - Al Ba orduan hurrengora neu ere joango naiz.
 - Bai, merezi du benetan.
 - Beno, ba, ea hurrengoan biok joaten garen.
 - Ea ba! Gero arte.
-

Atazotan asmoa ikasleei zein egiten zitzairen gaitzen eta zergatik aztertzea bazen ere, arazoa ez zen sortu testuaren zailtasunarengatik, ezta narrazioa elkarrizketa baino zailago egiten zitzaielako ere, edo alderantziz, baizik eta ikasleek mapa (Bilboko plano) ondo ezagutzen zutelako eta 4.1 atazan ibilbidea egiten zuen autobusa debekatutako norabide batetik sartzen delako. Ibilbidea aukeratu genuenean, ez genuen kontuan izan ikasle gehienek ondo ezagutzen dutela Bilbo, eta ibilbidea debekatutako norabidetik sartuko zela entzutean sortu zitzairen arazoa.

Zailtasunak ez ziren sortu, beraz, guk pentsa genezakeen alderditik, testu-motatik alegia, ataza prestatzean garrantzizkotzat jo ez genuen xehetasun batetik baino. Xehetasun horrek, ordea, ikasleek ezagutzen duten eguneroko errealitatetik at uzten zuen ataza eta nahastea eta anabasa ekarri zien ikasleei.

Azkenik, egin izan dugun beste ahaleginetako bat erabilera anitzetako eta maila desberdinetan erabiltzeko moduko materiala sortzea izan da. Ondoren aurkezten dugun ariketan, baldintza horiek betetzen saiatu gara, honakoak hain zuzen:

- Ariketa egin aurretik ikasleen arteko interakzioa bideratzea eta ariketarekiko interesa piztea.
- Ikasleak ikasiko duena aldeztu aurretik dakienarekin uztartu ahal izatea.
- Materiala errealia izatea.
- Eguneroko bizimodu eta mintzagaiekin lotura zuzena izatea.
- Grabazioa entzuten duten bakoitzean ataza berriren bat egin behar izatea.
- Egin beharreko ataza gero eta zailxeagoa izatea.
- Ariketa maila desberdinetan erabili ahal izatea.
- Ariketak jarraipena eskaintzea.

IRRATIKO BERRIAK

A Komenta itzazu puntu hauek zeure ikaskideekin:

- 1 Jantzita zaude munduan gertatzen denaz? Gogoko duzu munduan gertatzen dena jakitea?
- 2 Nondik hartzen duzu informazioa: telebistatik, irratitik ala egunkarietatik? Zergatik?
- 3 Berrien zein atal duzu gogokoen: Euskal Herria, Estatuia, politika orokorrean, kirolak, gizarteia, nazioartekoa, ...? Zergatik?
- 4 Egia da komunikabideetako berri-emankizunak guztiz manipulaturik daudela? Zein datu duzu uste duzuna egiaztatzeko?
- 5 Zein da azken aldi honetan gehien harritu zaituen berria? Kontatu.

B Irratiak atzo emandako berriak entzungo dituzu, baina, entzun aurretik, ea asmatzen duzun zein diren atzo bertan gertatuak. Taula betetzeko, atzo jaso zenuen informazioaz balia zintezke.

EUSKAL HERRIA	ESTATUA	NAZIOARTEKOAK
1.-	1.-	1.-
2.-	2.-	2.-
3.-	3.-	3.-
KIROLAK	GIZARTEA	BESTEAK
1.-	1.-	1.-
2.-	2.-	2.-
3.-	3.-	3.-

Aldera ezazu egin duzun berrien banaketa zure ikaskideek egin dutenarekin; albiste berberak aukeratu dituzue? Taulan ageri diren ataletan berdin banatu dituzue?

D Entzun dituzun berrien izenburuak hauexek dira, baina desordenan daude. Berrito entzungo dituzu eta saia zaitetz entzun dituzun ordenan jartzen.

ESTATUA ETA EUSKAL HERRIA

- 1 Cordobako La Ruzafa paradore nazionalen bonba-paketeta
- 2 Gomez Nieto guardia zibila kartzelatik libre irten liteke
- 3 Galindo Generalak izan dituen gezurrezko bi identitate aurkitu dituzte
- 4 Ajuriaeneako paktua
- 5 El Frances berriro kartzelara
- 6 Haize-parkeak edo parke eolikoak
- 7 Extasi berdea atzeman dute

NAZIOARTEKOAK

- 1 Txetxenia, gerra-giroa
- 2 Mostar

KIROLAK

- 1 Pilota: Andra Mari Zuri torneoa
- 2 Egoera fisikoa aztertzeko probak Errealeko jokalariek
- 3 Athletik gaur itzuliko da Lezamara
- 4 Milan gaur helduko da
- 5 Ziklismoa: Urkiola eta Donostiako klasikoak gaur aurkeztuko dira
- 6 Arraunketa: Gipuzkoako eta Bizkaiko txanda nagusiak

E Orain berriro entzungo dituzu berriak eta saia zaitetz azpian egiten zaizkizun galderei erantzuna ematen.

- 1 Zer dela eta irten liteke libre Gomez Nieto?
- 2 Zertarako eta zein aitzakiarekin erabiltzen zituen Galindo Generalak gezurrezko identitateak?
- 3 Zein alderdik ikusten du Ajuriaeneako Paktukideen bilerarako beharrik? Zeinek ez? Zeinek ez du erabaki?
- 4 Zer dela eta joan behar du kartzelara berriro *El Francesek*? Zer dela eta ezarri zioten 8 urteko kartzela-zigorra?
- 5 Nork inbertituko du dirua parke eolikoak egiteko? Zenbat? Norekin? Lehenengo haize-parkea non jartzeko asmoa daukate?
- 6 Nork atzeman du extasi berdea? Non? Zeren pareko da?

F Orain *Estatua eta Euskal Herria* saileko lehenengo berria oso-osorik entzungo duzu eta saia zaitetz azpiko taula betetzen

Bonba-paketea	Lehertarazi nork?
	Non?
Paradorean zeudenekin	Zer?
Bonba-paketea	Zerez eginda?
Deiak	Zenbat, Non
ETAk uda partean	Zer?

G Alderatu zeure ikaskidearen erantzunekin

H Irakur ezazue entzun duzun berria eta ikusi ea ondo erantzun duzuen.

“... Cordobako La Ruzaja, Cordobako paradore nazionalean, bonba-paketea lehertarazi dutela gaur goizaldeko hiruretan. Poliziak adierazi duenez, paradoreko parkinean pakete susmagarri bat ikusi dute, paradorean zeudenak aterarazi eta poliziak ba... pakete hori kontrolpean lehertarazi egin du. Ez du inongo kalterik egin. Poliziak adierazi du oraindik ez dakitela amonalez ala amosalez osatuta zegoen bonba-pakete hori. Une honetan egoera erabat normala da Cordobako paradore nazional horretan. Esan aurrez ba... bonba hori aurkitu aurretik edo... hiru dei jaso direla (bat Egin egunkarian) ba... bonba hori, lehergailu hori, jarrita zegoela esateko. Gogoratu beti ere ba... ETAk uda parte honetan turismoaren aurkako bonba-kanpaina daramala, batez ere, Mediterraneo inguruan. Hori Cordobatik jaso dugun albistea...”

“Irratiko berriak” ariketan A, B eta D atalak polito egin zituzten 4. urratseko ikasleek, 7 eta 8. urratsekoak gogoz aritu ziren ariketa osoa amaitu arte.

Ariketa-mota horretako atalak aldatu edota gehitu egin genitzake, ikasleen egitekoa errazago edo gaitzago bihurtuz. Horixe da, hain zuzen ere, ondorengo adibidean *Irratiko Berriak* atalaren E eta H pausoetan egin duguna.

E2 Orain berriro entzungo dituzu berriak. Saia zaitez azpian egiten zaizkizun galderei erantzuna ematen.

(entzunaldia)

IPAR EUSKAL HERRIA

Ba al dago zerbitzurik iparraldean?	Bai / ez
Lan uztea nozitu...	Non 1 2 3
Grebarako dei bateratua...	Nork
Frantziako gobernuaren asmoak...	1 2
Zeren kontrako protesta...	

ORTEGA LARA

ETAren esku...	... hilabete
ETAk Ortegaren berri...	Zenbat eta Nola
Familia...	Nola

Alderatu zeure ikaskidearen erantzunekin.

H2 Irakur itzazu ondoko berriak eta errepara iezaiozu letra etzanez dagoenari.

“Gogoan izan jaun-andreok, Ipar Euskal Herrian zerbitzurik ez dagoela gaur. Frantzia osoko funtzionarioek greba eguna dute gaur eta lan uztea garrario, ospitale eta eskola publikoetan *nozituko* da batez ere. Sindikatuek huelgarako *dei bateratua* egin dute Frantzian *aspaldiko partez*, Gobernuak egin nahi dituen murrizketen kontra protesta egiteko. Frantziako gobernuak 6000 langile publiko kanporatu nahi ditu datorren urtean eta ez du funtzionarioen soldatak igotzeko *asmorik*. Xalbador Basot, CDT sindikatuko ordezkariak goizean esan digu oro har Frantziako gobernuaren kontrako *protesta* dela gaurkoa”

“Jose Antonio Ortega Larak 9 hilabete egingo ditu gaur *ETAren esku*. 275 egun. ETAk urtarrilaren 17an bahitu zuen Ortega Lara Logroñon eta

geroztik bitan *besterik* ez du eman haren berririk. Otsailean argazkiak kaleratu zituenean eta apirilean funtzionarioaren gutuna *plazaratu* zue-
nean. Ortega Lararen emazteak atzo esan zuen bera eta bere familia *lur*
jota daudela eta oso une *latzak* pasatzen ari direla”.

Zenbaitetan ikasleek eurek prestatu izan dituzte **H2** moduko ariketak eta taldekideei pasatu, edo berriren baten transkripzioa egin.

Entzungo den albistegian zein berri azalduko den asma dezatela ere eskatu izan zaie ikasleei eta entzun ondoren usteak egiaztatzea, berri bat eta ez besteren bat zergatik aukeratu duten azalduz, etab.

Hemen azaltzen diren adibideak entzunezkoak (audiozintak) baino ez dira, baina, egia esan, gehien erabiltzen ditugunak ikusentzunezkoak (bideozintak) dira, irudia bera lagungarri baita ulertzeko orduan. Eta, kontestualizazio egokiagoa eskaintzen du. Dena den, erabili izan ditugun ariketetan eredia bera baino garrantzizkoago izan dira ikasgelan egin izan dugun behaketa eta horrek ekarri dizkigun eztabaida eta hausnartu beharra. Hemendik aurrera, ariketa-eredua edozein dela ere, irakasleok entzungaiak era logikoago eta zentzuzkoagoan erabiliko ditugulakoan gaude.

Bibliografia

Nunan, D. 1995. *Hizkuntzak irakasteko metodologia. Irakasleentzako testuliburua*. HABE: Itzulpen Saila 37.